



Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza, 2 - Tel. 943483750 - Faxe 943483765 - udala_euskara@donostia.eus - www.donostiaeuskaraz.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia

Euskararen Kontseilu Sektoriala - Ohiko Bilkura -

Data eta lekua:	2016ko maiatzaren 10ean Udaletxeko Tokiko Gobernu Batzarraren Gela
Hasiera eta amaiera ordua:	18:00-20:30

BERTARATUAK:

Talde politikoak:

LEHENDAKARITZA: Miren Azkarate_EAJ-PNV (2016 Hiriburutzako, Kulturako, Euskarako eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkaria)

Maria Luisa García_PSE-EE

Nerea Txapartegi_EH BILDU

Jon Aristizabal_IRABAZI

Jon Insausti_EAJ

Elkarteak, Hiritarrek eta Gizarte-ospe bereziko pertsona edo kolektiboak:

BAGERA ELKARTEA

BATZEN

BIZARRAIN ELKARTEA

URTXINTXA

BERRITZEGUNEA

EHU

GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA

REALA

KUTXABANK

EUSKADIKO KUTXA

Hiritar Norbanakoa 1

Hiritar Norbanakoa 2

Euskara Zerbitzuaren langileak:

Edurne Otamendi (Zerbitzu burua)

Alex Aisa (Atal burua)

Gonbidatua:

Xabi Paya (2016-Kultur zuzendaria)

EZ ZIREN BERTARATU:

PPko ORDEZKARIA

ULIAKO AUZO ELKARTEA

LABeko ORDEZKARIA

AEKko ORDEZKARIA (ezin etorria adierazi du)

SAN SEBASTIAN SHOPSEko ORDEZKARIA (ezin etorria adierazi du)



Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza, 2 - Tel. 943483750 - Faxe 943483765 - udala_euskara@donostia.eus - www.donostiaeuskaraz.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia

Lehendakaria beranduxeago etorriko dela adierazi duenez, gai zerrendaren ordena aldatzea erabaki da eta gai zerrendaren bigarren puntutik hasia erabaki da, Xabi Paya, Donostia 2016ko kultur zuzendaria, proiektuaren berri ematera etorri baita.

1.- Donostia 2016 Kultur Hiriburutzan euskararen eta hizkuntza gutxituen inguruan antolatzen ari diren egitasmoen berri ematea (Xabi Paya-Kultur zuzendaria)

Xabi Payak Donostia 2016ren xedea eta helburuak azaldu ditu lehenik eta behin. Ondoren, 284+kaia erabaki bi helburu nagusiak azaldu ditu:

- Hizkuntza-aniztasunari balioa eman.
- Eremu urriko hizkuntzen inguruan lanean diharduten eragileek sareak bultzatu.

Ondoren, Donostia 2016k hizkuntza gutxituen eremuan dituen egitasmoen berri eman du:

1-Elkarrekin bizitzeko kultura programa: Hitzargiak/ Europa bat-batean/Donostiapedia/ In varietate Concordia/ Donostiako hizkuntzak: 1761-2016/ Beste hitzak/ Itzultzaile berriak/ Euskarriak/ Interpret/ Ohar eleanitzak/ Codefest/ Hizkuntza eskubideak bermatzeko protokoloa/ Europako Hizkuntza Aniztasunaren Foroa eta Tosta CC

2-Elkarriketak atala: Karta zuriak / Durangoko Azoka

3-Energia Olatuak: 101L/ Ipuin Kontalarien maratona/ Mundu bat haur liburua/ Istorio kontalari berriak/ Auzoko: aniztasunean euskara plazara/ Euskara, partekatzen duguna/ Lingolang

Azkenik, 2016k dituen hizkuntza irizpide orokorrak azaldu ditu.

2.- Aurreko bileraren akta onartzea

EH Bilduko ordezkariak aktan zuzenketa bat egitea eskatu du. "EH Bilduko ordezkariak galdetu du zein neurri hartuko dituen Udalak euskalduntzearen doakotasunerantz, modu progresiboan, iristeko, bere ustez konpromiso hori bere egin baitzuen Udalak" jartzen duen tokian beste hau jartzeko adierazi du: "EH Bilduko ordezkariak galdetu du euskalduntzearen doakotasuna dela eta, zein neurri hartuko dituen Udalak. Izan ere, bere esanetan, Eusko Jaurlaritzak doakotasuna bermatzen ez duen bitartean, Udalak herritarren euskalduntzearen gastua modu progresiboan bere gain hartzeko konpromisoa hartu baitzuen."

Aldaketa egitea onartu da eta baita akta bera ere.

3.- Batzorde Iraunkorrak eratzea proposatzen duen lantaldeei onespena ematea eta osatzea

Lehendakariak jakinarazi du martxoaren 15ean Batzorde Iraunkorrak bilera egin zuela eta Batzordea formalki eratzeaz gain, Osoko Bilkurari ondoko hiru lantaldeak osatzea proposatzea adostu zela:

1-Merkataritza eta Ostalaritza lantaldea. Aurreko legealditik datorren lantaldea da eta aurrera jarraitzea proposatzen da. "Merkataritzan eta Ostalaritzan ere euskaraz" egitasmoarekin aurrera jarraitzeko lizitazioa egin da, Siadecoren esku geratu da kontratu administratiboa eta ekainean hasiko da lanean. Urtean 2.000 establezimendutara bisitak egingo dira.



Merkataritza lantaldean parte hartzeko gonbidapena egin die Miren Azkaratek Osoko Bilkurako kideei. EH Bildu eta PSE-EE alderdien ordezkariak prest daude parte hartzeko. Batzenek eta Bagerak ere batzorde honetan jarraitzeko interesa adierazi dute. Horrez gain, inplementazioa egingo den auzoetako euskara batzordeetako ordezkariak, eta Shops, Ostalaritza Elkartea eta Merkataritza Federazioko ordezkariak hartuko dute parte.

2-Kirolaren lantaldea osatzea da bigarren proposamena. Euskara Zerbitzuak denbora darama Añorga KKEekin elkarlanean eta bertan egindako esperientziaren bilakaera ezagutzea garrantzitsua dela adierazi du Edurne Otamendik. Horrez gain, Euskara Zerbitzua ekainean bukatuko den diagnostikoa hiriko 20 kirol elkartetan egiten ari dela gogorarazi du eta Udaltop jardunaldietan ere *"Kirola D ereduan, noizko? Nork eta zer egin genezake gazteen euskarazko kirol jarduna ziurtatzeko?"* gaia ere jorratu zela gogoratu du.

Lantalde honetan Euskararen Kontseilu Sektorialeko ordezkari hauek parte hartzeko asmoa adierazi dute: Reala, Urtxintxa, Batzen eta Bagera. Horrez gain, beharrezkoa ikusi da Donostiako Kirol Udal Patronatuaren kide bat bertan izatea eta baita bizpahiru kirol elkarte ere: Añorga KKE, Fortuna eta Bera Bera.

3-Hizkuntza Irizpideen lantaldea. Bi hizkuntza ofizialez gain, hizkuntza gehiago erabili behar direnean zein irizpide jarraitu adostea izango da lantalde honen helburua. Euskara Zerbitzuaren buruak aipatu du bi hizkuntza ofizialei begira jarraibideak landuta eta jasota daudela Euskararen erabilera normalizatzeko planean, baina ez dagoela ezer zehaztuta hizkuntza gehiago kontuan hartu behar direnean. Gainera turismoa Donostian hartzen ari den indarra kontuan hartuta, zerbait zehatza adosteko beharra dagoela adierazi du.

Horrekin batera, Euskara Zerbitzuak jendaurreko jardueretako hizkuntza jarraibideen berri ematen duen esku-orria aurkeztu du. Irabazi alderdi politikoaren ordezkariak eskatu du paper birziklatua erabiltzea hurrengoan.

Lehendakariak gaineratu du zalantzak ere sortzen direla kanpoan aurkezpenak egin behar direnean. Adibide gisa, Donostia Kulturak Bordelen egin behar duenean aurkezpen bat zein hizkuntza erabili behar du? Euskara eta gaztelania? Frantsesa? Ingelesa bakarrik? Gogoeta egitea eta adostasunera iristea beharrezkoa da bere ustez.

Batzeneko ordezkariak bere kezka adierazi du egitasmo hau ez ote den euskararentzako kaltegarria eta ez ote den euskararen presentzia gutxituko.

EH Bilduko ordezkariaren iritziz aldiz, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 5. planak bi hizkuntza ofizialen erabilera araututa du baina gainerako hizkuntzen trataerari buruzko aipamenik ez da egiten eta badago horri buruz hausnartzeko beharra bere iritziz.

Bestalde, Dbiziren adibidea mahaigaineratu da. Lau hizkuntza erabiltzen dira kalean dauden informazio euskarrietan, horren beharra baitago. Kasu horretan, esaterako, hizkuntz eleaniztasuna nola kudeatu behar den ez dago erabakita.

Euskara Zerbitzuaren buruaren esanetan sozietate publikoei, elkarteei eta udalekin harremanak dituztenei (diru laguntzak, kontratu administratiboak direla eta abar) euskara zerbitzu hizkuntza izatea bermatu behar dutela gogorarazi behar zaie eta hizkuntza jarraibide hauek ematea lagungarria izango da.

EH Bilduren ordezkariak aipatu du horren jarraipena egin behar dela eta hizkuntza jarraibideak betetzen ez dutenei jakinarazi egin behar zaiela. Lehendakariak erantzun dio jarraipena, sistematikoki ez bada ere, egiten dela. Ildo honetatik joz, Bagera elkartearen ordezkariak adierazi du autobus geltoki berrian hainbat hizkuntza jarraibide ez direla bete. Lehendakariak erantzun du obra entregatu gabe dagoela oraindik, hizkuntza jarraibideen



Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza, 2 - Tel. 943483750 - Faxe 943483765 - udala_euskara@donostia.eus - www.donostiaeuskaraz.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia

inguruko txostena egin duela Euskara Zerbitzuak eta obraren arduradunaren mahaian dagoela gaia.

Lantalde honetan Euskararen Kontseilu Sektorialeko ordezkari hauek adierazi dute parte hartzeko asmoa: PSE-EE, EH Bildu, Bagera Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak, Batzen. Haez gain, Donostia Turismoak, Donostia 2016, Donostia Kultura eta Kursaleko ordezkariak ere gonbidatuko dira lantaldean parte hartzera.

4.- Batzorde Iraunkorrak finkatu duen egutegiaren berri ematea

- Euskararen kontseilu sektorialaren hurrengo bilera urriaren 18an, 18.00etan

Lehendakariak proposatu du Hizkuntza Irizpideen lan taldea ekainaren erdialdera biltzea.

Batzeneko ordezkariak, bestalde, eskatu du 2017ko ekintza planari buruzko hausnarketa bat egiteko aukera izatea. Lehendakariak hurrengo bilerarako aurreikuspen bat aurkezten saiatuko dela esan du.

Eta horrela, bilera bukatutzat eman da 20:05ean.